

“Garaiko genero-arau itogarrien lekukotza ematen du liburua, gainbehera itxuraz intimo bat kontatuz”

GARAZI ARRULA

ARGAZKIA: ZALOA FUERTES

Sylvia Plath-ek eleberri bakarra idatzi zuen bizi zela, kultuzko nobelatzat hartua da ordea. Euskaraz argitaratu berri den honetan, Garazi Arrula itzultzailearekin hitz egin dugu.

Itzultzailea izateaz gainera, Txalapartako editorea ere bazara. Azalduko zeniguke nola kokatzen den *Beirazko kanpaia* argitaletxearen proiektuan? Batetik, Txalapartak badu euskarara ekarritako titulu andana bat, bereziki narratibari, eta tartean klasikoak; bestetik, azken hamar-hamabost urteetan feminismoaren hamaika ertz argitaratzen ari gara, alorreko eztabaidei gure ekarpena egin nahian. Liburu hau bi ardatz horietan kokatzen da, eta gure katalogoan izan behar genuela iruditzen zitzaigun. Hizkuntza eta literatura normalizatua ez edukitzearen alde onak: halako mais-tralanak ekartzeko aukera dugu.

Zer kontatzen du eleberriak?

Esther Greenwood protagonista gazteak hilabete pasatuko du New Yorken, moda eta literatur albizkari batean aritzeko beka bat irabazita. Liburuaren lehen erdian egonaldi horren berri ematen du narratzaileak, ema-

kume gazteen talde baten joan-etorriak: doako festen dirdirazko giro apartsu bat, alderik alde zeharkatzen duten arau sozialak eta genero-rolak lagun. Horretarako, ironia fina eta itxuraz xaloa den kontraera darabil. Bigarren erdian ilunduz joanen da kontakizuna, mundu arin antzeko hori puskatzen doan heinean, eta protagonistak aterabide zailko gainbehera emozional bati ekin dio, ospitale psikiatriko batetik bestera eramane duena. Gainbehera itxuraz pertsonal eta intimo baten kontakizuna, beraz, garaiko gizartearen genero-arau itogarrien lekukotza bat da egiaz.

Azpiarragarria iruditzen zait, hain zuzen ere, zer ondo uztartzen diren alderdi historikoak eta pertsonala.

Bai, hori du dohainetako bat, eta oso modu sotilean egiten du gainera. Iñigo Astizek ere horixe azpiarratzen du liburuaz idatzitako testuan (ez alferrik, *Exekuzio publi-*



BEIRAZKO KANPAIA
Sylvia Plath
Itzultzailea: Garazi Arrula
TXALAPARTA

koak, suizidio intimoak goiburua jarri zion artikuluari). Eleberria abiatzen da AEBko espetxeetan oraindik indarrean diren exekuzioen aipamen batekin, eta liburu osoan iraunen du esparru pribatuaren eta publikoaren arteko elkarriketak.

Liburua 1963an argitaratu zen, "bigarren olatu feministaren garaitsuan", liburuaren kontra-lean diozuenez. Zertan nabaritzen da hori?

Adituek diotenez, bigarren olatua XIX. mendearen erdialdetik XX. mendeko erdialdera arteko tartean eman zen. Sufragismoaren printzipioak ezarri ziren, eta emakumeen egoera esklabotzarekin konparatzen zen. Beterie dikotomia baten barruan, emakumezkoak-familia eta gizonezkoak-estatua lotura nagusia irauli nahi izan zuten hainbat feministek. Hortik edan zuen Plath gazteak, eta hala eman bere nobela: esperientzia pertsonaletik abiatzen da –amatasuna, heriotza, gorputza, eritasuna– gai kolektibo arantzatsuak jorratzeko –eromena, sexua, abortua, suizidioa–.

Era berean, garai hartan feminismoak emakumea bere gorputzaren jabe zela aldarrikatu zuen eta sexu-askatasunaren alde egin, eta gorputza oso presente dago hasi eta buka. Garaiko teoria eta mugimenduarekin dialogo bat sortzen da horrela nobela honetan, eta horregatik jotzen da mugarriztat.

DANELE SARRIUGARTE Idazlea

Elkarrizketa osorik:
<https://bit.ly/GaraziArrula>



Novedades para amantes de **HISTORIAS REALES.**

Ariel
CRÍTICA
PENINSULA